



Osatzenen oharra koronabirusak EAeko Lehen Arretan eragindako egoeraren harira

Bilbo, 2020ko maiatzaren 8a

Iragan dira **Lehen Arretako (LA) aurrekontu eta giza-baliabideak utzikerian erori direla** salatzeneko uneak, **esparru politiko zein osasun esparruan** bertan ere ahotsik ez duela erreklamatzeko momentuak, sekula sistemaren ardatza izan ez dena, **ospitaleak oinarri dituen piramidearen azpikalde bihurtu** zaigu.

Hiru arrazoigatik iragan dira horretarako momentuak: administrazioak entzungor egiten dietelako LAko profesionali, LAko profesionalak bultzatutako mobilizazioek (Lehen Arreta Arnasberritzen) nolabaiteko ikusgarritasuna lortu dutekolako eta covid-19 pandemiak sortutako olatuak lortu duelako mugiezina zena mugitzea, inertiak geratzea eta osasun sistema zurrinak plastizitatea zuela erakustea.

Guzti horregatik, momentu berezi baten aurrean gaude, **Familia medikuok eta Lehen Arretako langile-taldeko guztiok, gai izan behar dugu krisi honetatik aukerak ateratzeko eta normaltasunera ez bueltatzeko, “normaltasuna baitzen arazoa”.**

Kontsulta presentzial eta ez-presentzialak birpentsatzea, aldi baterako ezintasun paperak kentzea eta asistentzia denbora **kudeatzeko molde berriak posible izan** diren 3 aldaketa dira, eta **lan-lerro berrien oinarri bihurtu behar ditugu, sistemaren jasagarritasunerako eta LA indartzeko.**

Osasun zentrueri behar duten autonomia izan dezaten erraztea, lehenetsi beharreko lan-lerroetako bat da. LAko profesionalak behin eta berriz aldarrikatu dugu, aintzat hartua izan ez bada ere, nahiz eta zentruen artean desberdintasunak egon badauden (handiak eta txikiak, hiri eta herri edo landa-eremuak...), hauen antolatze modua arauzkoa izatetik autogestioan oinarritua izatera pasatuz.

Covid-19ak herritarren eskaerak guztiz aldatu ditu, ezin zitekeen beste modu batera izan, gaixotasun akutu, berri, ezezagun eta kutsakor baten aurrean, non **kasuen %80ak** (arin eta autolimitatuak) **Lehen Arretan artatu eta gestionatuak izan diren**. Denbora tarte honetan, ohiko kontsultak alde batera utzi behar izan ditugu pandemian zentratzeko, paziente zahurgarrienak beti presente.

Herritar eta komunitatearengandik gertu egoten saiatu gara, ezjakintasunezko momentu hauetan alboan egoten. Benetan uste dugu herritarrek egoerak eskatzen duen erantzuna eman dutela, eta ez dugu dudarik egiten artatzeko moduan etorriko diren aldaketak egoki onartuko dituztela, herritarren ahotsa kontuan hartzea ezinbestekoa izango delarik.

Pandemiaren gorena pasata, ospitaleak erritmoa berreskuratzen ari diren bitartean, LAko langileak koronabirusaren lehenengo kontaktua (eta askotan bakarra) izateko lanean jarraituko dugu (kasu berriekin, proiektu desberdinak aurrera eramaten Osasun Publikoarekin elkarlanean, mediku jagole moduan, egoitza soziosanitarioen kontrola eginez, Osasun Ministeritzaren seroprebalentzia-ikerketan parte hartuz...), aste hauetan albo batera utzitako guztiari berriro helduz eta pandemiak populazioaren osasunean sortutako ondorioak ahaztu gabe.

Beste oinarritzko ildoetako bat baliabideen hornidura da. **Ikerketa eta zaintza aktiboak, denbora eta**

esfortzu garrantzitsua eskatzen dute eta giza baliabideak beharko dira egoki aurrera eramateko. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu espezialista formatu berriei kontratu erakargarriak eskaini ahal izatea, ospitale alorrean gertatu den bezala. Horretarako, kontratazioak egiteko orduan Lehen Arretan hain garrantzitsua den luzetarako arreta kontuan hartzea beharrezkoa da (kontratuen egonkortasuna denboran eta unitatearekiko loturan), bai pazienteentzat eta baita profesionalentzat ere.

Oinarrizkoa iruditzen zaigu LAN kontratatzen direnei, kontratua luzatzeko aukera ematea, hala nola zelariei, administrariei, erizain laguntzaileei, erizainei, medikuei... inguruaren ezagutza oinarrizkoa delako bakoitzaren kompetentziak garatzeko eta LAko taldearen lana egokiena eta onena izateko datorkigun aro berri honi segurtasunez eta kalitatez ekin diezaigun.

Bestalde, Osasun Departamenduaren Lehen Arretako estrategia ahalik eta lasterren behartzea espero dugu, martxoan hasi baitzen martxan.

Ikuspuntua Lehen Arretan jarri behar da, gizarteak behar duen osasun sistema jasangarri eta ekitatiboa izateko giltzarria baita, krisi eta desberdintasun momentu hauetan inoiz baino beharrezkoagoa.

Familia eta Komunitateko
Medikuen Euskal Elkarte

Sociedad Vasca de Medicina de
Familia y Comunitaria



*Osatzen Familia eta Medikuntza Komunitarioko
Espainiako Elkartearen Euskal Federazioa da. Mila
bazkide baino gehiago ditu. Familia Medikuntzako*

espezialitateak herritarren osasun arreta hobetzea du helburu, pertsonan, familian eta komunitatean bere arreta areagotuz.